



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRENTSARAKO OHARRA

2016/12/12

Batzar Nagusiek Bidebarrietako Liburutegiko horma-irudiak berreskuretako aukerea "ebaluetan" Bilboko Udalagaz lankidetzan aritzeko eskatu deutsie Aldundiari

Euskera eta Kulturako batzordean, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egin deutsie Bizkaiko Foru Aldundiari, bere ondare arloko teknikarien laguntza eskini deion Bilboko Udalari, Echenagusia eta Guinea margolariek Bidebarrietako Liburutegiko Hitzaldien Aretoko sabaian egindako horma-irudiak berreskuratzeko "dagozan aukera posibleak ebaluetako", "40ko hamarkadan" pintura berdez estaldu ziran eta. Gaur goizeko saioan Talde Mistoak gai horren inguruan aurkeztu dauen arauz besteko proposamena onetsi da, Euzko Abertzaleak taldearen (EAJ-PNV), Euskal Sozialistak taldearen (PSE-EE) eta Bizkaiko Talde Popularraren (PP) aldeko botoak eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen abstentzinoa jaso ditu eta.

Liburutegia Achúcarro arkitektoak El Sitio Soziedadearen egoitza izateko eregi eban eraikinean dago. Bidebarrietako arkitektura arloko "harribitxia" hitzaldi areto nagusia da, eta bertako gangak Echenagusia eta Guinea margolarien freskoak erakutsi ebazan. Bilboko Udalak eskuratu eta bertako sabaiak margo berdez estaldu ziran, Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak adierazo dauenez. Gaur egun holan jarraitzen dau, margo geruzaren azpian dagozan jatorrizko irudien aztarna batzuk ikusi daitekezan arren.

Orain denpora gitxi jakin izan danez, gangaren zirriborro txiki bat "5.000 euroengaitik" saldu zan orain urte gitxi Madrilen, EH Bilduko Txusa Padronesek zehaztu dauenez. El Sitio Soziedadeko pertsonek, Bilboko galeria bategaz batera egindako hainbat gestinoren ostean, gangaren itxurea berreskuratzeko proiektua prestau da, gainean kopia bat eginez, erreferentzia moduan zirriborro hori erabilita. Proiektu horren kostua "15.000 euro ingurukoa" izango litzateke, Aldecoak esku artean dauen informazioak erakusten dauenez.

Jatorrizko margolanak berreskuratzea gauza "interesgarria" da, eta Talde Mistoko batzordekideak gainean kopia bat jartea aukera hoherena izango ete litzateken galdetu dau. Hori dala eta, "estrategia posible hoherena ebaluetako" orduan inpliketa eskatu deutso Aldundiari, freskoak berreskuratu ahal izateko, hori egitea posible balitz.

Proposamenaren kontra agertu ez arren, gainerako batzordekideek adierazo dabe Bilboko Udalari jagokola margolanen inguruan eta uriak Aldundiko adituen laguntza behar dauen ala ez erabagitea. Juan Otermin batzordekide sozialistak, dana dala, onetsitako proposamena "larregikoa" dala esan dau, Aldundia "Udal guztien esku dagolako", kultur ondarearen inguruko aholkularitzeagaz erlazionautako gaiei jagokenez.

ITSASADARREKO MUSEOA, "DEFIZIT BARIK"

Saio berean, Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako foru diputatuak agerraldia egin dau, Talde Mistoak eskatuta, Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoaren egoera ekonomikoaren barri emoteko. Urte honetarako dagon itxierako aurreikuspena kontuan izanda, museoak "ezelango defizit eta ezelango zor barik" amaituko dau ekitaldia, Batzarretako taldeei jakinarazo deutsenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Foru Aldundiak eta Museoaren Patronatuak Museoaren egoera ekonomiko negatiboari bueltea emoteko eta kultur ekipamendu hori indartzeko aurreikusi dituen estrategien inguruko galderari erantzunez, Bilbaok aurreratu dauenez, kultur gunea kudeetan dauen erakundeak aho batez onetsi dau, 2017ko lehenengo lau hilekoa amaitu aurretik, museoa, itsasoagaz erlazionautako dibulgazino gune moduan “barriro leku hoberenean kokatzea lortzeko” plan estrategikoa.

Diputatuak andreak esan dauenez, planteamendu horregaz “asmetan” bada, Bilboko museoa “erreferente bilakatu daiteke”. Behar hori “erronka erakargarria, ilusinoz betea eta gaitza” dala esan dau. Egiteko horri ekin aurretik, ziklo barria “kontuak egoera onean eukita” hastea komeni dala azpimarratu dau.

Batzarretako taldeei emondako erantzunean, plan barria “asmo handikoa baina errealistea” izango dala, eta behar egiteko “epe laburreko, ertaineko eta luzeko” ildoak markaungo dituala esan dau Bilbaok. Guzurtau egin dau museoaren gaiztasun ekonomikoak “kudeaketa txarraren” ondorioz diranik, Podemos taldeak aurpegiratu deutsan moduan, Museoak “%60ko auto-finantzaketea lortu duela”. Aldundiko arduradunak guzurtau egin dau, baita be, museoa “gain-dimentzionauta” dagonik, ez ikuspegi ekonomikotik ezta bertako beharginen aldetik be.

Bilbaok onartu dauenez, Udalak eta Aldundiak baliabide ekonomikoak bideratu behar izan ditue kontuak parekatzeko eta errazoi bi dirala eta ohiko diru-sarreren jatsiereari aurre egin ahal izateko: bisitari kopuruaren murrizketa eta, ondorioz, sarrera gitxiago saltzea; eta urian dagozan gainerako erakusketa guneen gero eta lehiakortasun handiagoa.

ZUBILETA DORRETXEAREN EGOERAREN INGURUKO TXOSTENAREN ENTREGEA

Euskera eta Kulturako batzorde berean, EH Bilduk, alde batetik, Landaida-Goikoako (Berango) indusketa batzuetatik datozen eta Euskal Arkeologia Museoari emon jakozan objektu arkeologikoen, eta bestetik, Barakaldon dagon Zubileta Dorretxearen egituraren berreskuratze eta mantentze lanen inguruan egin beharreko txostenaren gaineko azalpenak eskatu ditu.

Barakaldon dagon higiezinari jagokonez, Bilbaok, bere sailak, Barakaldoko Udalagaz lankidetzan, eraikinaren estrukturaren egoerearen eta ondarearen ikuspegitik daukan interesaren inguruan prestau dauen txostenaren kopia bat emon deutse Batzarretako taldeei. Diputatuak andreak baieztu egin dau daborduko ezaguna dan eraikinaren egoera gero eta okerragoa, eta teknikarien eretxiz Zubileta Dorretxeak “zaindu beharreko” ondare balioa daukala, beste errazoi batzuen artean, Bizkaian “oso gitxi ikusten dan” moetako eraikina dalako. Teknikariek aurreikusi dabenez, jatorrizko higiezinaren parteak berreskuratzeak, geroago egin jakozan gehikuntzak kentzeak, eta balioa emoteak, “184.000 euroko” kostua izango dau. Maria Esther Furundarena jeltzaleak txostenetik bertatik atara dau datu hori.

Berangon dagon Landaida Goikoa merkataritza azalerea egongo dan lekuko hondeaketa lanetan aurkitu ziran eta daborduko Euskal Arkeologia Museora eroan diran “130 tresnei” jagokonez, Bilbaok garrantzia kendu deutso aurkikuntzari. Aurkitutako zeramikak edo “industria litikoak” “ez dauka balio arkeologiko azpimarragarririk edo berezirik”, museoko teknikariek prestau dabentxostenak adierazoten dauenez. Halanda be, aurkikuntza egin zanetik, Aldundia “behar guztien azterketa arkeologikoa” ari da egiten –adierazo dau– bestelako aztarnarik agertzen bade.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

IRAUNKORTASUNERAKO ETA INGURUNE NATURALERAKO BATZORDEA

Aurretik egindako saioan, Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordeak ez ditu onartu oposizinoak aurkeztu dituan arauz besteko hiru proposamenak. Batean, Espainiako armadak Bizkaiko lurretan “martxak edo maniobrak” egiteko baimenik ez emotea eskatu deutso EH Bildu taldeak Aldundiari. Ekimenak Podemos Bizkaiaaren aldeko botoak baino ez ditu jaso, eta gainerako taldeek kontrako botoa emon dabe, lege kontuak dirala eta. Foru Aldundiari “prebariketako” eskatzea modukoa izango litzateke, adierazo dau Talde Mistoko ordezkariek.

Batzordeak arauz besteko beste proposamen bat be atzera bota dau, oraingo honetan Talde Mistoak aurkeztutakoa, Eusko Jaurlaritzak ez daian Peñas Negraseko ingurumen interpretazinoko zentroa Gallartako Euskadiko Meatzaritzaren Kultur eta Ingurumen Parkean eregiko dan eraikinera eroan. EAJ-PNV eta PSE-EE ekimenaren kontra agertu dira, eta Trianoko zentroa “ez dala desagertuko” esan dabe. Eusko Jaurlaritzaren hasierako planteamentua, “bulegoak eta erakusketaren parte bat” lekuz aldatzea da, Meatzaldeko Biotopoaren meatzaritza iragana zabaltzeko proiektu orokorraren barruan, María Presa jeltzaleak adierazo dauenez.

Arauz besteko beste proposamen baten bitartez, Talde Mistoak legealdi honetan Aldundiak Bizkaiko abeltzainen eta nekazarien artean kanpaina didaktikoak “bultzatzea” eskatu dau, abeltzainen eta nekazarien ganaduak hirugarrenengan eragin lekiezan kalteak barruan hartuko dituan erantzukizun zibileko asegurua kontratetaren komenigarritasuna zabaltzeko. PP taldea izan da planteamentuaren alde agertu dan bakarra, EAJ-PNVk eta PSE-EEk kontrako botoa emon dabe eta EH Bildu eta Podemos abstenidu egin dira.

Foru Gobernua eusten daben taldeen eretxiz, sektoreak ezagutzen dau daborduko “derrigorrezkoa ez dan” aukera hori, eta baita Aldundiak aseguruen primen kostua “%25era arte” laguntzeko eskintzen dauen aukerea be. Baino kontua da, momentuz, “gitxi” dirala diru-laguntza horrek eskatzen dituen “abeltzainak”. 2015ean “zazpi” izan ziran, eta aurton “bederatzi” doaz, Gorka Beitia jeltzaleak baieztu dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

NOTA DE PRENSA

12/12/2016

Las Juntas Generales piden a la Diputación que colabore con el Ayuntamiento de Bilbao en "evaluar" la recuperación de las pinturas murales de la Biblioteca de Bidebarrieta

Las Juntas Generales de Bizkaia han instado hoy a la Diputación Foral, en la comisión de Euskera y Cultura, a que ofrezca al Ayuntamiento de Bilbao la colaboración de sus técnicos de Patrimonio, para "evaluar las posibles opciones" en recuperar las pinturas murales de los pintores Echenagusía y Guinea realizadas en la bóveda del salón de conferencias de la Biblioteca de Bidebarrieta, y que "en la década de los 40" fueron cubiertas con pintura verde. En la sesión de esta mañana, se ha aprobado una proposición no de norma en este sentido planteada por el grupo Mixto que ha contado con el apoyo de Nacionalistas Vascos (PNV), Socialistas Vascos (PSE-EE) y el grupo Popular Vizcaíno (PP), y con la abstención de EH Bildu y Podemos Bizkaia.

La biblioteca se asienta en un edificio construido por el arquitecto Achúcarro para ser sede de la Sociedad El Sitio. La "joya" arquitectónica de Bidebarrieta es la gran sala de conferencias, cuya bóveda lució en sus primeras décadas frescos de los pintores Echenagusía y Guinea. Adquirido por el Ayuntamiento bilbaíno, las pinturas del techo fueron cubiertas por una pintura verde, según ha relatado el representante del grupo Mixto, Arturo Aldecoa. Hoy sigue así, aunque en su fondo se distinguen algunas sombras de las imágenes originales que yacen bajo la capa de pintura.

Recientemente, se ha sabido que un pequeño boceto de la bóveda fue vendido hace pocos años en Madrid por la cantidad de "5.000 euros", dato que ofrecido después Txusa Padrones, de EH Bildu. Tras diversas gestiones realizadas por personas de la Sociedad El Sitio, en colaboración con una galería bilbaína, se ha presentado un proyecto de recuperación del aspecto de la bóveda mediante la superposición en la misma de una copia utilizando como referencia este boceto, cuyo coste supondría "unos 15.000 euros", según la información que maneja Aldecoa.

Recuperar las pinturas originales es algo "interesante" y el apoderado del grupo Mixto se ha preguntado si superponer una copia encima sería la mejor opción. Por ello, Aldecoa ha pedido que la Diputación se implique en "evaluar la mejor estrategia posible" para llevar a cabo la recuperación de los frescos, si esto fuera posible técnicamente.

Pese a no rechazar la propuesta, el resto de grupos junteros han apostillado que corresponde al Ayuntamiento de Bilbao tomar una decisión sobre las pinturas y sobre si la villa necesita la colaboración de los expertos forales. El juntero socialista Juan Otermin ha definido, en cualquier caso, la propuesta aprobada de "exceso", ya que cree que la Diputación "está a disposición de todos los ayuntamientos" en cuestiones de asesoramiento en materia de patrimonio cultural.

EL MUSEO MARÍTIMO, "SIN DÉFICIT"



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

En la misma sesión, la diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha comparecido, a propuesta del grupo Mixto, para informar de la actual situación económica del Museo Marítimo Ría de Bilbao. La previsión de cierre para este año es que el museo acabe el ejercicio “sin ningún déficit y sin ninguna deuda”, según ha trasladado la responsable foral a los grupos junteros.

En respuesta a las estrategias previstas por la Diputación Foral y el Patronato para revertir la negativa situación económica del museo y potenciar este equipamiento cultural, Bilbao ha avanzado que el órgano gestor del centro cultural ha aprobado por unanimidad tener listo antes de que termine el primer cuatrimestre de 2017, un plan estratégico para el “reposiciónamiento” del museo como centro divulgativo relacionado con el mar.

La diputada ha sostenido que “si se acierta” en este planteamiento, el museo bilbaíno “puede ser un referente”. Ha definido este trabajo como “un reto atractivo, ilusionante y complicado” y ha añadido que antes de acometer esta tarea, era conveniente empezar un nuevo ciclo “con las cuentas saneadas”.

En respuesta a los grupos junteros, Bilbao se ha referido a que el nuevo plan será “ambicioso, pero también realista” y marcará las líneas de trabajo “a corto, medio y largo plazo”. Ha negado que las penurias económicas del museo se deban a una “mala gestión” como les achacaba Podemos, ya que el museo “ha alcanzado una autofinanciación del 60%”, ha dicho. La responsable foral ha negado también que el museo esté “sobredimensionado”, ni en su vertiente económica ni en lo que se refiere a su personal.

Bilbao ha admitido que tanto el Ayuntamiento como la Diputación han tenido que inyectar recursos económicos para cuadrar las cuentas y hacer frente a la bajada de los ingresos corrientes motivada por dos cuestiones: una reducción de los visitantes y, por consiguiente, de la venta de entradas; y una mayor competencia de espacios expositivos en la ciudad.

ENTREGA DEL INFORME SOBRE EL ESTADO DE LA CASA TORRE DE ZUBILETA

En la misma comisión de Euskera y Cultura, EH Bildu ha pedido explicaciones sobre los objetos arqueológicos donados al Museo Vasco de Arqueología procedentes de unas excavaciones en Landaide-Goikoa (Berango), por un lado, y sobre el informe de las obras de recuperación y mantenimiento de la estructura de la Casa Torre de Zubileta, en Barakaldo.

En referencia al inmueble de la localidad fabril, Bilbao ha entregado a los grupos junteros una copia del informe elaborado por su departamento en colaboración con el ayuntamiento de Barakaldo sobre el estado de la estructura del edificio y su interés patrimonial. La diputada ha confirmado el ya sabido deterioro del mismo y que los técnicos han concluido que la Casa Torre de Zubileta tiene un valor patrimonial “a cuidar”, entre otras cosas, por ser un edificio “muy escaso” en Bizkaia. Los técnicos estiman que realizar las correspondientes labores de recuperación de las partes del inmueble originales, la eliminación de los añadidos posteriores y su puesta en valor, tendrá un coste de “184.000 euros”, dato que la jeltzale María Esther Furundarena ha extraído del propio informe.

En cuanto a los “130 instrumentos” descubiertos en las excavaciones de la futura superficie comercial de Landaide Goikoa en Berango, y que han sido trasladados al Museo Arqueológico,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Bilbao ha restado importancia al hallazgo. La cerámica o “industria lítica” encontrada “no tiene un valor arqueológico destacable o especial”, según el informe emitido por los técnicos del museo. Aún así, desde que se produjo el hallazgo, la Diputación está realizando “una supervisión arqueológica de todas las obras” -ha advertido- por si aparecieran otros restos.

COMISIÓN DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL

En una sesión celebrada con anterioridad, la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural ha rechazado las tres proposiciones no de norma presentadas por la oposición. En una, EH Bildu pedía que se reclamara a la Diputación a que se negase a conceder autorizaciones para que el Ejército español realizará “marchas o maniobras” en suelo vizcaíno. La iniciativa sólo ha contado con el apoyo de Podemos Bizkaia, mientras que el resto de grupos han votado en contra argumentando que se trata de un asunto de “legalidad”. Sería como pedir a la Institución foral que “prevaricara”, ha señalado el representante del grupo Mixto.

La comisión ha tumbado también otra iniciativa no de norma, en este caso planteada por el grupo Mixto, para que el Gobierno vasco no traslade el centro de interpretación ambiental de Peñas Negras, en Ortuella, al futuro edificio del Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco, en Gallarta. La iniciativa ha caído por el rechazo de PNV y PSE-EE que han sostenido que el centro de Triano “no va a desaparecer”. El planteamiento inicial del Gobierno autonómico es trasladar “las oficinas y parte de la exposición” dentro de un proyecto global de divulgación del pasado minero del Biotopo de Meatzaldea, según ha advertido la jeltzale María Presa.

A través de otra proposición no de norma, el grupo Mixto solicitaba que la Diputación “impulsase” durante esta legislatura campañas didácticas entre los ganaderos vizcaínos para que contratasen seguros de responsabilidad civil que incluyeran daños a terceros causados por el ganado. El planteamiento ha sido apoyado solo por el PP y desecharido por PNV y PSE-EE, mientras que EH Bildu y Podemos se han abstenido.

Para los grupos que sustentan al Gobierno foral, el sector ya conoce esta posibilidad “que no es obligatoria” e, incluso, la opción de la Diputación de subvencionar con ayudas de “hasta el 25%” del coste de las primas de seguro. El hecho es que, de momento, “pocos ganaderos” se acogen a estas subvenciones. En 2015 fueron “siete” y este año van “nueve”, según ha confirmado el jeltzale Gorka Beitia.